2017ko maiatzaren 25 eta 26an
GASTEIZ

9. Biltzar nagusia

# LAB 4.0.
# GURE GARAIA

LAB

LAB 4.0. GURE GARAIA

9. Biltzar nagusia
LAB
www.lab.eus

# PONENTZIA POLITIKO SINDIKALA

ERABAKI NAGUSIAK

**1. Euskal sozialismoa eraikitzeko apustua. Kapitalismoaren eraginpean jarraitzen dugu.** Kapitalismoaren ofentsibari dimentsio berria ematera goaz, kapital – bizitza konfliktoaz hitz egin behar da. Gaurko eredu ekonomiko eta soziala ez da jasangarria. Errotik aldatzeko apustua egitea planteatzen dugu. Kapitala eta merkatuak erdigunean kokatzen dituen eredutik bizitza erdigunean kokatuko duen eredura igarotzearen aldekoak gara. Euskal sozialismoa eraikitzearen aldeko apustua egitea planteatzen dugu.

**2. Euskal Estatua, euskal sozialismoa eraikitzeko tresna.** Euskal Estatura eramango gaituen bidea burujabetza prozesua izango dela diogu. Burujabetza, nazio moduan dagokigun erabakitzeko eskubidea eskuratzeko, burujabetza sistema hau aldatzeko, burujabetza euskal demokrazia eraikitzeko, burujabetza lan mundua aldatzeko, burujabetza gatazka politikoa konpontzeko.

**3. Alde bakarreko burujabetza prozesua azkartzeko apustua.** Prozesua martxan jarri eta haustura demokratikoaren aldeko hautua egitea proposatzen dugu. Prozesu horrek, gehiengoen atxikimenduan oinarritu eta eratzailea eta eraldatzailea behar du izan.

Gure ekarpena honela marrazten dugu:

- Estrategia sozioekonomiko argia izatea. Kongresuan ponentziako ardatzak onartzen badira, ondoren zehaztuko dugu estrategia hori.
- Karta Sozialaren balio estrategikoan berrestea.
- Estatus politiko berrien eztabaidan klase interesak kokatzea: erabakitzeko eskubidearen alde egiten dugu eta hori gurera ekarriz, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrurako (LHBSEE) eta esparru sozioekonomiko propiorako bitartekoak eskuratzea izango da gure lehentasunezko borroka.
- Langileriaren aktibazioa eta mobilizazioa sustatzea.
- Eremu soberanistan adostasunak eraiki eta lankidetzaren alde egitea.

**4.Bizitzaren sostengarritasuna gure eredu sindikalaren erdigunera ekartzea.** Horretarako, langileen aktibazioa da bermea eta ezinbestez kontraboterean sakontzea dakar honek, mobilizazio gaitasuna handitu behar dugu kapitalaren aurrean eta mobilizazio gaitasuna handitu instituzioek beste erabaki politiko batzuk har ditzaten.

**5.Langile klasearen berrosaketa bultzatzea.** Lana bere osotasunean aitortu eta langileriaren baitan integratu behar dira kolektibo desberdinak. Datozen urteak esatetik egitera igarotzeko urteak izan behar dira. Horretarako gure diskurtso eta praktika sindikala egokitu eta berritu, moblizazio eta aktibaziorako molde berriak eskaini eta erabaki organizatiboak hartuko ditugu.

**6. Ekintza sindikal eta sozial integrala,** bizitzaren prekarizazioari aurre egin eta bizitza duinaren aldeko borroka egiteko. Soldatapeko langileen lan baldintzen defentsatik harago, negoziazio kolektiboaren muga estuetan ito gabe, ekintza sindikala indartzeko eta berritzeko erabakietan sakondu. Lana eta aberastasunaren banaketa orekatuagoaren aldeko borroka zein sektore publikoaren aldeko borroka indartuz eta lan harreman eta babes sozialerako euskal esparruaren aldeko borrokari bultzada berria emanez.

**7. Aliantzak bultzatu. Nazioartean ezkerreko sindikalismoa indartzeko.** Euskal Herrian, kapitalaren kontrako ofentsiban sakontzearen alde eta burujabetza prozesuaren alde gaudenon artean, alegia, aldaketa sozialak eta aldaketa horiek berme

LAB 4.0 GURE GARAIA

9. Biltzar nagusia LAB

www.lab.eus

# PONENCIA POLÍTICO SINDICAL

## PRINCIPALES DECISIONES

**1. Apuesta por la construcción del socialismo vasco.** Seguimos bajo la influencia del capitalismo. Proponemos dar otra dimensión a la ofensiva del capitalismo, es necesario hablar del conflicto capital-vida. El actual modelo económico y social no es sostenible. Nuestra apuesta es cambiarlo de raíz. Debemos de pasar a un modelo que sitúe la vida en el centro, en lugar del modelo en cuyo epicentro confluyen capital y mercado.

**2. El Estado Vasco, el instrumento para construir el socialismo vasco.** El proceso soberanista es el camino que nos llevará al Estado Vasco. Soberanía para conquistar el derecho a decidir que nos asiste como nación, soberanía para cambiar este sistema, soberanía para construir la democracia vasca, soberanía para transformar el mundo laboral, soberanía para resolver el conflicto político.

**3. Acelerar el proceso soberanista unilateral.** Apostamos por poner en marcha el proceso y nos posicionamos en favor de la ruptura democrática. La base de este proceso, constructivo y transformador, ha de ser la consecución de mayorías.

Nuestra aportación consistiría en:

- Tener muy clara nuestra estrategia socioeconómica, que concretaremos más adelante en caso de que se aprueben los ejes de la ponencia en el Congreso.
- Reafirmarnos en los valores estratégicos de la Carta Social.
- Situar los intereses de clase en el debate de nuevos status políticos: estamos a favor del derecho a decidir, por lo que, y centrándolo en nuestro ámbito, nuestra lucha prioritaria se centrará en lograr instrumentos para desarrollar el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social (MVRL y PS) y un espacio socioeconómico propio.
- Impulsar la activación y movilización de la clase trabajadora.
- Profundizar en la cooperación y la consecución de acuerdos en el ámbito soberanista.

**4.Situar la sostenibilidad de la vida en el centro de nuestro modelo sindical.** En ese camino, la activación de las y los trabajadores será el mejor garante. Ese aspecto, necesariamente, nos conducirá a profundizar en el contrapoder. Tenemos que potenciar nuestra capacidad de movilización frente al capital para obligar a las instituciones a adoptar otras decisiones políticas..

**5.Impulsar la reconstrucción de la clase trabajadora.** El trabajo ha de ser reconocido en su totalidad y es necesario integrar a los diferentes colectivos dentro del conjunto de trabajadoras y trabajadores. Tenemos que pasar de las palabras a los hechos en los próximos años. Para ello, abogamos por adecuar y renovar nuestro discurso y práctica sindical, por ofrecer nuevas fórmulas de movilización y activación y por tomar nuevas decisiones organizativas.

**6. Acción sindical y social integral,** con objeto de hacer frente a la precarización de la vida y para luchar a favor de una vida digna: más allá de la defensa de las condiciones laborales de las y los trabajadores asalariados, sin ahogarnos en las limitaciones de la negociación colectiva, profundizando en decisiones que refuercen y renueven la acción sindical; fortaleciendo la lucha a favor de un reparto más equilibrado del trabajo y de la riqueza, defendiendo el sector público y dando un nuevo impulso a la lucha por la consecución del Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social (MVRLyPS).

**7. Impulsar alianzas.** A nivel internacional, para fortalecer el sindicalismo de izquierdas. Y en Euskal Herria, entre quienes tenemos como objetivo profundizar en la ofensiva contra el capital y estamos a favor del proceso soberanista.

LAB 4.0.
GURE GARAIA

4. Biltzar nagusia
LAB
www.lab.eus

# ANTOLAKUNTZA PONENTZIA

## ERABAKI NAGUSIAK

**1. Sindikatuaren izaera definitzen duten baloreak gaurkotu.**
LAB nortasun handiko sindikatua izan da, 1976an sortu zenetik. Gure ibilbidean zehar balore eta nortasun ikur batzuk izan ditugu. Horiei eusteko asmoa dugu aurrerantzean ere, baina Euskal Herria nahiz nazioarte mailako erronken arabera eguneratuz. Ildo horretan:

- Sindikatu feminista: praktika feministara jauzia
- Sindikatu nazionala, hiru esparruetan eragin, ikuspegi komuna jorratuz. Berritasuna: "Sindikalgintza Mugaz gaindi" egitasmoa
- Kontrabotere sindikatua, herri boterea sortzea helburu
- Sindikatu independentista: nortasun-ikur bat baino gehiago
- Sindikatu sozialista. Ekosozialismoruntz
- Sindikatu euskalduna eta euskaltzalea

Balore horiekin batera, bi ezaugarri garrantzitsu hauek indartu nahi ditugu:

- Sindikatuaren autonomia: askapen prozesuan klase interesen defentsa
- Sindikatuaren barne aniztasuna: LABen egitasmoarekin bat datozen horiez gain, eredu sindikalak erakarrita etorritakoak ditugu gurean. Aberastasun hori zaindu eta eztabaida sozial eta politikoa indartu.

**2. Sindikatuaren eraldaketa feministari berrekin.**
LAB aitzindaria izan da emakumeen parte hartzeari dagokionez: zuzendaritza marko parekideak ditugu aspaldi. Alabaina, horrek aldaketa batzuk ekarri baditu ere, Sindikatuaren antolaketa eta militantzia eredua garai bateko gizonek sortutakoa da hein handi batean. Oraingo erronka eredu berri bat eraikitzean datza, bizitza eta pertsonak erdigunera ekarriz eta gure praktika feminista gaurkotuz. Horretarako:

- Emakume Idazkaritza indartu beharra dago. Idazkaritza Feminista deituko diogu.
- Eskola Feminista sortzea proposatzen da, LABkideon kontzientzia eta praktika feminista auspotzeko.
- Gure antolaketa eta ekintza sindikala berrituko dugu.

**3/4. Ekintza sozio-sindikal berritua egiteko gure tresnak indartu.**

- Gure tresna nagusia Federazioak izan dira orain arte. Aurrerantzean ere funtsezkoak dira ekintza sindikala diseinatu eta bideratzeko. "Federazioa" ez da maila nazionalean edo egoitzan dagoen zerbait, Federazioa osatzen dute lantoki guztietako LABeko afiliatuak, ordezkariak eta liberatuak, nahiz antolaketarako esparru ezberdinak. Horien guztien arteko harremana estutzea da erronka.
- Horrekin batera, Ekintza Sozialeko egitura sortzea planteatzen da. Herriz herri, auzoz auzo, eskualdez eskualde, egungo eredua aldatu nahi duten LABkideak saretu nahi ditugu. Eskualde bakoitzeko arduradun bana finkatuko da eta horiek guztiak Nazio Komite propio batean bilduko dira. Horrez gain,maila nazionalean lan-eremu ezberdinak egongo dira: pentsiodunak, politika publikoak, Karta Soziala, ekosozialismoa. Hiru eginkizun:

  - Lehenengoa, langileon bizi baldintzen inguruko borrokak sustatzea (etxebizitza, zerbitzu publikoak, pentsioak...);
  - Bigarrena, federazioei laguntzea, borroka sindikalak herrietan islatzeko orduan.
  - Hirugarrena, bizi nahiz lan baldintzen inguruko borroka, eredu sozial eta ekonomikoaren aldaketarekin lotzea.

**5/6/7. Afiliazioa balioan jarri, antolatu eta parte hartzea sustatu.**

- Sindikatua elkar babestu eta elkarrekin borrokatzeko elkartzen diren langileen komunitatea da. Elkartasuna izan behar da komunitate horren oinarria. Elkartasuna afiliatu batek lan gatazka bat pairatzen duenean baita bizi baldintzei loturiko gatazka bat bizi duenean ere (esaterako, etxegabetzea). Afiliatzea behar-beharrezkoa da langileok autodefentsarako tresnak izan ditzagun. LABzaleak diren horiek, koerenteak izateko, afiliatu behar dira. Afiliazioarik gabe ez dago sindikatu borrokalaririk.

- Afiliatuak antolatzeko eskaintza dibertsifikatu behar du Sindikatuak:

  - Sail Sindikalak: lantoki bakarra duen enpresako afiliatuen bilgunea.
  - Sare Sindikala: lantoki ezberdinak dituen enpresa bereko afiliatuen saretzea.
  - Elkargune Sindikala: lantoki berean edo ekoizpen-jarduera berean ari diren enpresetako afiliatuen elkargunea (esaterako, enpresa nagusia eta azpikontratak, edo merkatal gune bateko saltoki ezberdinak).
  - Afiliatuen Mintegia: enpresa txikietako afiliatuei zuzendua bereziki (baina irekia izan daitekeena), noizean behingo mintegia lan-baldintzen inguruko informazio praktikoa eskaintzeko eta harreman bat mantentzeko.
  - Herri edo eskualdeko Ekintza Sozialeko sarea (aurretik aipatutakoa).

- Azkenik, barne komunikazioa eta parte hartzea indartzeko apustua egiten dugu, sindikatuaren barne bizitza afiliazio osoari irekiz eta Kontsultak bezalako mekanismoak ahalbidetuz.

**8. Klase subjektua berrosatzeari begira, langile sektore ezberdinak antolatzeko ahalegina egin.**

- Pentsiodunak (ekintza sozialeko egituran)
- Langabeak (ekintza sozialeko egituran)
- Etxeko langileak (soziokomunitarioan)
- Bekario eta praktiketan direnak (nor bere Federazioan)
- Enplegu zentro bereziak (azpisektore bezala antolatu, aurrerago erabakiko dugu zein Federazioan txertatu).
- Autonomo faltsuak (nor bere Federazioan)
- Beltzean ari direnak (premiazko egoerei erantzuna Eskualdetik).

**9. Zehar lerroak garatu.**
Orain arte bi zehar lerro estrategiko izan ditugu, aukera berdintasuna eta euskara. Horiek indartu eta Federazioetan txertatzearekin batera, beste hiru zehar lerro garatzen jarraitu nahi dugu:

- Aukera Berdintasuna (aurrerantzean, Eraldaketa Feminista)
- Euskalduntzea
- Aniztasun sexuala: azken urteetan politika sozialetik landu da, orain zehar lerroetatik.
- Aniztasun funtzionala: azken urteetan gure jarduera moteldu da eta indartu nahi dugu.
- Migranteak

**10. Langileekiko komunikazio bideak indartu.**
Azken urteotan Komunikazioaren esparrua erabat eraldatu da eta LAB ez dago behar bezala prestaturik horri aurre egiteko. Lehentasunetako bat dugu hori eta horretarako:

- Komunikazio ardura biderkatu: espezialisten talde bat izateari utzi eta eskualde, Federazio nahiz lantoki nagusietan komunikazio arduradunak finkatu nahi ditugu.
- Prestakuntza integrala, LABkide guztiei bideratuta, egiten dugun oro baita Komunikazioa.
- Komunikazio bide propioak indartu: 1) Lantokiz lantoki, aurrez aurre; 2) Infogunea herri eta auzoetan, noizbehinkakoa edo iraunkorra; 3) Infogune telematikoa.

LAB 4.0. GURE GARAIA

4. Biltzar nagusia
LAB
www.lab.eus

# PONENCIA ORGANIZATIVA

## PRINCIPALES DECISIONES

**1. Actualización de los valores que definen el carácter del sindicato.**
LAB es un sindicado con gran personalidad, desde su creación allá por 1976. A lo largo de nuestro recorrido, hemos sido fieles a una identidad y valores propios. Seguiremos apostando por ellos, pero actualizándolos en función de los retos que afrontemos en Euskal Herria y a nivel internacional. En este sentido:

- Sindicato feminista: salto a la práctica feminista
- Sindicato nacional, con incidencia en los tres ámbitos, trabajando con una visión común. Novedad: proyecto "Sindikalgintza Mugaz gaindi"
- Sindicato de contrapoder, con aspiración a constituir el poder popular
- Sindicato independentista: más que un símbolo identitario
- Sindicato socialista. Hacia el Ecosocialismo
- Sindicato euskaldun y euskaltzale

Junto a estos valores, queremos reforzar estas dos características importantes:

- Autonomía sindical: defensa de los intereses de clase en el proceso de liberación
- Diversidad en el seno del sindicato: independientemente de integrar a todas y todos aquellos que se identifican con el proyecto de LAB, contamos en nuestro seno con personas atraídas por nuestro modelo sindical. Salvaguardar esa riqueza y reforzar el debate social y político.

**2. Retomar la transformación feminista del sindicato.**
LAB es pionero en la participación de las mujeres: contamos, desde hace tiempo, con marcos de dirección constituidos desde la paridad. No obstante, aunque esa decisión haya supuesto algunos cambios, el modelo de organización y militancia del sindicato es, en gran medida, el mismo que decidieron los hombres de la época. El reto actual no es otro que construir un nuevo modelo en cuyo centro se sitúen la vida y las personas y sirva para actualizar nuestra práctica feminista. Para ello:

- Debemos reforzar la Secretaría de la Mujer. En adelante, le llamaremos Secretaría Feminista.
- Crearemos la Escuela Feminista para impulsar la conciencia y práctica feminista de las y los integrantes de LAB.
- Renovaremos nuestra organización y acción sindical.

**3/4. Reforzar nuestras herramientas con objeto de desarrollar una renovada acción socio-sindical.**

- Las Federaciones han sido hasta ahora nuestra principal herramienta, y, en adelante, seguirán siendo fundamentales para diseñar y canalizar la acción sindical. La "Federación" no es un instrumento ligado a una sede o un concepto que orbita a nivel nacional, la Federación está compuesta por todas y todos los afiliados, representantes y liberadas y liberados de LAB, así como por diferentes ámbitos organizativos. El reto consiste en estrechar vínculos entre todos ellos.
- Junto a este reto, crearemos un nuevo instrumento: la estructura de Acción Social. Crearemos una red con todas y todos los miembros de LAB dispuestos a cambiar el modelo actual, y lo haremos pueblo por pueblo, barrio por barrio, comarca por comarca. Se asignará un responsable en cada comarca y se reunirán en un Comité Nacional propio. Además de esto, se crearán diferentes ámbitos de trabajo a nivel nacional: pensionistas, políticas públicas, Carta Social, Ecosocialismo. Tres funciones:

  - Promover las luchas en favor de las condiciones de vida de las y los trabajadores (vivienda, servicios públicos, pensiones...).
  - Ayudar a las federaciones a la hora de trasladar la lucha sindical a los pueblos.
  - Vincular la lucha en favor de las condiciones de vida y de trabajo con el cambio de modelo social y económico.

**5/6/7. Poner en valor la afiliación, organización e impulso de la participación.**

- El sindicato es una comunidad en cuyo seno se reúnen trabajadores para protegerse entre sí y luchar de forma colectiva. La solidaridad ha de ser la base de esa comunidad. Solidaridad cuando una persona afiliada sufre un conflicto laboral o una problemática ligada a sus condiciones de vida (un desahucio, por ejemplo). La afiliciación es imprescindible para que las y los trabajadores tengamos herramientas para la autodefensa. Las y los simpatizantes de LAB deben afiliarse por coherencia. Sin afiliación no hay luchadores y luchadoras sindicales.

- El sindicato ha de diversificar las posibilidades de organización de las y los afiliados::

  - Secciones Sindicales: punto de encuentro de las y los afiliados de la empresa que tiene un único centro de trabajo.
  - Red Sindical: articulación de las y los afiliados de la misma empresa, teniendo ésta diferentes centros de trabajo.
  - Punto de Encuentro Sindical: punto de encuentro de las y los afiliados de empresas que operan en el mismo centro de trabajo o en el mismo ámbito de producción (empresa principal y subcontratas, o comercios diferentes en un mismo centro comercial).
  - Seminario de Afiliadas y Afiliados: dirigido principalmente a afiliadas y afiliados de empresas pequeñas (aunque puede tener carácter abierto), se trataría de un seminario eventual para ofrecer información práctica sobre condiciones laborales y para fortalecer relaciones.
  - Red de Acción Social en pueblos o comarcas (citado anteriormente).

- Por último, apostamos por reforzar la comunicación interna y la participación, ampliando la vida interna del sindicato a toda la afiliación, posibilitando así mecanismos de consulta.

**8. Tratar de organizar los diferentes sectores de cara a reconstruir el sujeto de clase.**

- Pensionistas (en la estructura de acción social)
- Desempleadas y desempleados (en la estructura de acción social)
- Trabajadoras y trabajadores domésticos (sociocomunitario)
- Becarias y becarios y personas en prácticas (cada cual en su Federación)
- Centros especiales de empleo (articularlos como subsector; más adelante decidiremos en qué Federación se integran)
- Falsos autónomos (cada una y cada uno en su Federación)
- Personas que trabajan en negro (las comarcas responderán a las situaciones de urgencia)

**9. Desarrollar la transversalidad.**
Hasta ahora, hemos desarrollado dos líneas transversales estratégicas: igualdad de oportunidad y euskara. Además de reforzar e integrar éstas en las Federaciones, continuaremos desarrollando otras tres líneas transversales:

- AIgualdad de oportunidad (Transformación Feminista, en adelante)
- Euskaldunización
- Diversidad sexual: se ha trabajado desde política social en los últimos años; se trabajará ahora desde las líneas transversales.
- Diversidad funcional: se trata de una actividad que ha decaído en los últimos años, por lo que reforzaremos este apartado.
- Migrantes

**10. Reforzar las vías de comunicación con las y los trabajadores.**
En los últimos años, el espacio comunicativo se ha transformado por completo y LAB no está en la mejor disposición para hacer frente a esa coyuntura. Es una prioridad y para ello:

- Multiplicar la responsabilidad comunicativa: queremos asignar responsables de comunicación tanto en comarcas y Federaciones como en los principales centros de trabajo, dejando de ser así un grupo de especialistas.
- Formación integral, dirigido a todas y todos los miembros de LAB. Tenemos que ser conscientes de que todo lo que hacemos es Comunicación.
- Reforzar nuestro propio camino comunicativo: 1) En los centros de trabajo, de forma presencial; 2) Puntos informativos en pueblos y barrios, eventuales como permanentes; 3) Puntos informativos telemáticos.

# LAB 4.0. GURE GARAIA

## BILTZAR NAGUSIAN PARTEHARTZEA, INOIZ BAINO ERRAZAGO | PARTICIPAR EN EL CONGRESO NACIONAL, MÁS FACIL QUE NUNCA

http://biltzarra.lab.eus

• Afiliatu guztiok har dezakegu parte prozesuan.
• Emendakinak egin, zuzendaritza hautaketan parte hartu eta biltzarkide izateko 2016ko ekainaren 23a baino lehenagotik sindikatuan alta emanda egon eta kuotak egunean izan behar dira.

## NORK
QUIÉN




• Todas y todos los afiliados podemos participar.
• Para presentar enmiendas, participar en la elección de la dirección y ser congresista, las y los afiliados han de estar dados de alta en LAB desde antes del 23 de junio de 2016 y tener las cuotas de afiliación en orden.

• Presentzialki edo aplikazio telematikoaren bidez.
• Emendakinak ere aplikazioaren bidez egingo dira.

## NOLA
CÓMO




• De forma presencial o a través de la aplicación telemática.
• Las enmiendas también se realizarán por medio de la aplicación.

• Biltzarraren informazioa
• Ponentziak
• Emendakinak
• Zuzendaritzaren hautaketa

## ZER
QUÉ




• Información del Congreso
• Ponencias
• Enmiendas
• Elección de la dirección

• BILTZAR NAGUSIAREN PROZESUA
Urtarrilaren 19an hasi eta maiatzaren 25-26an amaituko da, GASTEIZEN.
• EMENDAKINAK AURKEZTEKO:
Urtarrilaren 19 - Martxoak 19.

## NOIZ
CUANDO



• PROCESO DEL CONGRESO NACIONAL
Arrancará el 19 de enero y concluirá el 25-26 de mayo en GASTEIZ.
• PRESENTACIÓN de ENMIENDAS:
19 enero-19 de marzo.

• ESKUALDEETAKO AURKEZPEN ETA EZTABAIDA BATZARRAK:
Urtarrilak 19 - Otsailak 28.
• ESKUALDETAN EMENDAKINEN EZTABAIDA egiteko epea:
Martxoak 27 - Apirilak 15.
• 2017ko apirilaren 3an egungo zuzendaritzak ZUZENDARITZA BERRIRAKO PROPOSAMEN OFIZIALA egingo du.
• BILTZARKIDEAK hautatzeko epea:
Apirilak 3 - Apirilak 28.
• AZKEN EBAZPENAK Biltzar Nagusia amaitu eta 6 hilabeteko epean argitaratuko dira.

• ASAMBLEAS COMARCALES DE PRESENTACIÓN Y DEBATE:
19 enero - 28 de febrero.
• Plazo de DEBATE DE LAS ENMIENDAS EN LAS COMARCAS:
27 de marzo - 15 de abril.
• El 3 de abril de 2017, la actual dirección realizará la PROPUESTA OFICIAL PARA LA NUEVA DIRECCIÓN.
• Plazo de elección de CONGRESISTAS:
3 de abril - 28 de abril.
• Las RESOLUCIONES DEFINITIVAS se publicarán en un plazo de seis meses desde la finalización del Congreso.